

## JARDUERA-UZTEAGATIK PRESTAZIO EKONOMIKOAREN ESKAERA

### 1. ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

Lehen abizena		Bigarren abizena		Izena	
Giz. Seg. Afiliazio Zk. Zk.		NAN/IFZ/pasaportea/AIZ		Jaiotze data	
Helbidea		Telefono finkoa		Telefono mugikorra	
Udalerrria		Probintzia		Posta kodea Posta	
Gizarte Segurantzako erregimena Zk.		Langile autonomo mota (markatu "X" batez dagokiona):			
Autonomoa (RETA) <input type="checkbox"/>		Autonomoa (TRADE) <input type="checkbox"/>			
Itsasoko Erregimen Berezia <input type="checkbox"/>		Lan elkartuko kooperatibako bazkide langilea <input type="checkbox"/>			
Nekazaritzako Sistema Berezia (SETA) <input type="checkbox"/>		Jarduera profesionala beste batzuekin batera garatzen duen langile autonomoa <input type="checkbox"/>			
Eskatzailearen egoerak:		Bai		Ez	
Besteren konturako langilea da		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
Flota gelditzeagatik laguntzak jasotzen ditu		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
Beste prestazio batzuk jasotzen ditu		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
Gizarte Segurantzako pentsioak jasotzen ditu		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
		Mota:			
		Mota:			

### 2. ESKATZAILEAREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEN DATUAK

Eskatzailearekin bizi diren seme-alabak		NAN/IFZ/ Pasaportea/AIZ		Jaiotze data	
Abizenak eta izena					
1.					
2.					
3.					
4.					
5.					
Ezgarritua		Ezgarritasun-maila (markatu "X" batez dagokiona)		Lan egiten du	
Bai Ez		%33 baino gutxiago %33 baino gehiago		Bai Ez	
1.		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
2.		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
3.		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
4.		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
5.		<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	
				Aurreko urteko errentak	
				Aurtengo errentak	
				Egoera zibila	

### 3. JARDUERARI BURUZKO DATUAK

Enpresaren izena		Enpresaren IFK			
Ez dago establezimendurik <input type="checkbox"/>		Establezimenduaren izena			
Ez dago establezimendua badago <input type="checkbox"/>					
Jardueraren helbidea		Zenbakia		Atea	
				Solairua	
				Esk./blokea	
Herria/Probintzia/Herrialdea		Posta kodea Posta		Telefonoa	
				Posta elektronikoa	
Jarduera ekonomikoa/Lanbidea/Ogibidea		Behin-behinekotasuna		Besteren konturako langileen kopurua	
		___/___/___ (e)tik			
		___/___/___ (e)ra arte			

### 4. Enplegu edo jarduera-aniztasuna

Beste enpresaren izena		Langilearen erregimena beste enpresan			
Helbidea		Zenbakia		Atea	
				Solairua	
				Esk./blokea	
Udalerrria		Probintzia		Posta kodea Posta	
				Telefonoa	
				Posta elektronikoa	
Beste enpresaren IFK		Beste enpresan dituen eginkizunak			



## 9. ZINPEKO DEKLARAZIOA

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren V. tituluaren preskripzioa betez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena, non 332. artikuluan jarduera uztearen legezko egoera egiaztatzeko era zehazten den lege-gorputz beraren 331. artikuluan araututako kasu guztietan, ondorengo egiaztatzen da:

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakiarekin,  
\_\_\_\_\_ NAN/IFZ/pasaporte/AIZ zenbakiarekin eta \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_- (e)n bizi denak, bere erantzukizun pean  
adierazten du: \_\_\_\_\_,

\_\_\_\_\_ Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakiarekin,  
\_\_\_\_\_ NAN/IFZ/pasaporte/AIZ zenbakiarekin eta \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_- (e)n bizi denak, bere erantzukizun pean  
adierazten du:

**Langile autonomo gisa bere jarduera utzi duela, ondorengo arrazoi batengatik (adierazi dagokiona):**

- Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, produktiboak edo antolaketakoak direla eta
- Jarduera ekonomiko edo profesionala uztea ezinbesteko kasuetan oinarritutako arrazoiak direla eta, kasuaren izaera ondorengo izanik: \_\_\_\_\_

Izaera:  Aldi baterakoa  Behin betikoa

- Langile autonomoak aldi baterako edo behin betiko jarduera ekonomiko edo profesionala uztea genero indarkerian oinarritutako arrazoiak direla eta

Izaera:  Aldi baterakoa  Behin betikoa

**Halaber, adierazten du emandako arrazoiak ondorengo datan gertatu dela:**

\_\_\_/\_\_\_/\_\_\_

Ondorengo ere adierazten du (adierazi dagokiona):  jendearentzat zabalik dagoen merkataritza, industria edo beste izaerako establezimendu baten jabe dela, eta hemen kokatuta dagoena (adierazi helbide osoa) \_\_\_\_\_ eta itxita egongo dena jarduera uzteari lotuta dagoen prestazio ekonomikoa jasotzen den denboraldian.

### AITORTZEN DUT

nire erantzukizun pean, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adin txikikoak zaintzeko prestazio ekonomikoa eman dakidan sinatzen dudana eskaera honetan ematen ditudan datuak egiazkoak direla, eta adierazten dut jakinaren gainean nagoela prestazioa jaso bitartean datu horien aldaketarik izanez gero **umivale** jakinarazteko betebeharra dudala.

### ADIERAZTEN DUT,

baimena ematen dudala nire identifikazio-datuak, eragileen datuak eta egoitza-datuak, Erregistro Zibilean eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzian edo Foru Ogasunetan daudenak, kontsultatu ahal izateko, konfidentzialtasunaren bermearekin eta beharrezko xedeetarako, datu horietara iristeko bide informatikoak erabiltzen direnean.

## 10. DATA ETA SINADURA.

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (e)ko (a)ren \_\_\_\_\_ (e)an.

Eskatzailearen sinadura

**11. ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.** (markatu "X" batez erantsi duzun dokumentazioa adierazteko)

**Izaera orokorreko egoera guztietan:**

- NAN, IFZ, pasaporte edo AIZren fotokopia (bi aldeetatik).
- Lan-etekin gaineko atxikipenen PFEZren eredia beteta, data jarrita eta sinatua (Euskadi/Nafarroa izan ezik).
- Azken 12 kotizazio-buletinen fotokopiak.
- Kotizatutako hilabeteak bermatzen dituen Gizarte Segurantzarako kotizazio-ziurtagiria.
- Enplegu Zerbitzu Publikoko dokumentua, zeinak egiaztatzen duen langileak jarduera konpromisoa sinatu duela (urriaren 30eko 8/2015 Errege Lege Dekretuko 300. art., Gizarte Segurantzaren lege orokorreko testu bategina) eta lan merkatura itzultzeko prest dagoela.
- Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egunean duela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren ziurtagiria.
- Dagokion Erregimen Berezian baja eskatu izanaren egiaztatzea.

**Eskatzailearekin bizi diren seme-alaben kasuan:**

- Familia-liburuaren fotokopia.
- Dagokionean, ezintasun maila aitortzen duen dokumentu ofizialaren fotokopia.

**Eskatzaileak bere menpeko langileak dituen kasuan:**

- Langilean bajako agiriaren egiaztatpena, 84/1996 Errege Dekretuko 18 eta 29.1 artikuluen zehaztapenen arabera.

**Prestazioa arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa-ak edo produktiboak direla eta eskatzen den kasuan:**

- Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (AEAT) edo Autonomia Erkidegoen autoritate eskudunaren ziurtagiria.

**Arrazoi ezinbesteko kasuren bat den guztietan:**

- Organo kudeatzaile eskudunek igorritako deklarazioa, non gertakizuna noiz jaso zen agertuko den.

**Arrazoi baimen administratiboa galtzea den guztietan:**

- Organo eskudunak emandako baimena galdu izanaren behin betiko ebazpen administratiboa.
- Ebazpen horretan baimena galtzearen arrazoiak agertzen ez diren kasuan, entitate administratiboak igorritako dokumentu bat behar izango da, non baimena galtzeko arrazoiak agertzen den.

**Arrazoi genero indarkeria den guztietan:**

- Idatzitako deklarazioa non eskatzaileak jarduera utzi edo eten duela adierazten duen, utzi edo eten deneko data aipatuz.
- Ondorengo dokumentu judizialak bat:
  - Aurretiazko eginbideak hasteko autoa.
  - Biktima babesteko kautelazko neurriak hartzeko erabakitze autoa.
  - Atxilotutakoaren behin-behineko espetxealdia erabakitze autoa.
  - Ahozko epaiketa hasteko autoa.
  - Fiskaltzaren txostena edo akusazio-idazkia.
  - Epai kondenatzailea.

- Mendeko langile autonomoen kasuan (TRADE), ekonomikoki mendekoa den bezeroaren idatzitako komunikazioa, non jardueraren uztea edo etena agerian jarriko den, honen data adieraziz.

**Arrazoi dibortzio edo banantzea den guztietan:**

- Ebazpen judiziala.
- Negozioan familiako laguntzaren funtzioen jardueraren galera egiaztatzen duen GSDNren ziurtagiria.
- Merkataritzako agirien kopia, non funtzio horien uztea agertzen den.

**Gehigarria, erretiroa hartzeko ohiko adina bete duen langile autonomoaren kasuan:**

- Erretiroa hartzeko eskubidea edukitzeko kotizatutako denboraldien ziurtagiria.

**Gehigarria, Administrazioa edo Kontseilukide gisa diharduen langilearen kasuan:**

- Batzar Nagusiaren akta, zeinean Sozietatean bere jarduera uztea erabakitzen den.

### **Gehigarria, mendeko langile autonomoen kasuan (TRADE):**

- Kontratuaren, lanaren edo zerbitzuaren iraupenaren amaieraren kasuan, Enplegu Zerbitzu Publikoaren dagokion erregistroari jakinaraztea.
- Bezeroaren kontratuaren ez-betetze larriaren kasuan, ondorengo dokumenturen bat:
  - Bezeroak idatzitako jakinarazpena non jarduera etetearen data adierazten den.
  - Ebazpen judiziala.
- Bezeroaren arrazoa justifikatuta dagoen kasuan, ondorengo dokumenturen bat:
  - Bezeroak igorritako idatzizko jakinarazpena, gertatu denetik hamar egun baliodunen epean aurkeztu beharko duena; bertan, argudiatutako arrazoa eta jarduera etetearen data adierazi beharko dira.
  - Jakinarazpen horren ezean, bezeroari aipatutako jakinarazpena igortzeko eskaera egin izanaren kopia.
- Bezeroaren arrazoa justifikatuta ez dagoen kasuan, ondorengo dokumenturen bat:
  - Bezeroak igorritako idatzizko jakinarazpena, gertatu denetik hamar egun baliodunen epean aurkeztu beharko duena; bertan, jarduera etetearen data eta eteteagatik eman beharreko kalte-ordaina adierazi beharko dira.
  - Jakinarazpen horren ezean, bezeroari aipatutako jakinarazpena igortzeko eskaera egin izanaren kopia.
  - Ebazpen judiziala.
- Arrazoa bezeroaren heriotza, ezintasuna edo erretiroa hartu duela bada, dagokionean:
  - Erregistro Zibileko heriotza-ziurtagiria.
  - Ezgaitasun iraunkorraren onarpena egiaztatzen duen entitate kudeatzailearen ebazpena.
  - Erretiro pentsioaren onarpena egiaztatzen duen entitate kudeatzailearen ebazpena.

### **Gehigarria, lan elkartuko kooperatibako bazkide langileen edo antzekoen kasuan:**

- Kooperatibatik kanporatu diren bazkideen kasuan:
  - Dagokion organo administratiboak bazkidea kanporatzeko hartutako erabakiaren jakinarazpena, kanporatzearen data adierazita.
  - Adiskidetze judizialaren akta.
  - Kanporatzearen bidegabetasuna berariaz deklaritzen duen behin betiko ebazpen judiziala.
- Arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo produktiboak diren kasuan, bazkide langileen jarduera eta lan-prestazioaren behin betiko edoaldi baterako amaierari buruzko batzar orokorraren akordioaren hitzez-hitzezko egiaztapena.
- Jendearentzat zabalik dagoen establezimendu bat egonez gero, bazkide langile guztien jarduera eta lan-prestazioaren behin betiko edoaldi baterako amaiera ematen den kasuan, establezimenduaren itxieraren komunikazio ofiziala.
- Sozietateari lotuta egoteko epealdi mugatua amaitu izanagatik: dagokion organo administratiboaren ziurtagiria, zeinak aipatutako arrazoiarengatik kooperatiban baja hartu beharra eta horren ondorioetarako data jasota uzten dituen.
- Arrazoa genero indarkeria den kasuan: eskatzaileak idatzitako deklarazioa, zeinak kooperatiba-sozietatean lan-prestazioa amaitu edo eten duela adierazten duen.
- Probaldia amaitzen den kasuan, dagokion organo administratiboak adostutako ez onartzearen komunikazioa.
- Lan elkartuko kooperatibak besteren konturako langileren bat edo gehiago izanez gero, bazkide langile guztien jardueraren erabateko amaiera ematen den kasuan, mendeko langileen lan-arloko legerian araututako betebeharrak, berme eta prozedurak bete izanaren deklarazioa aurkeztu behar izango da.

## 12. INTERES-INFORMAZIOA.

### Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

- **Arduraduna:** **umivale**, Gizarte-segurantzarekin batera aritzen den 15. Mutua. Reial Monestir de Poblet etorbidea 20, 46930, Quart de Poblet (Valentzia) – Datuak Babesteko Kontaktatu Delekatua: [dpd@umivale.es](mailto:dpd@umivale.es)
- **Helburua eta Legezko Oinarria:** Gizarte-segurantzako esparruan dagozkion prestazioen kudeaketa administratiboa, laguntzazkoa eta ekonomikoa bideratzea. Tratamendu hau gauzatzen da umivale Mutua Gizarte-segurantzaren kidea izatetik sortzen diren behar legalak aplikatzen direlako.
- **Hartzaileak:** Gizarte-segurantza, eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eta datu pertsonalen atzipena duten hirugarren hornitzaileak. Gizarte-segurantza eta horren menpeko erakundeak. Epaitegiak eta Auzitegiak. Bankuak, aurrezki kutxak eta landa kutxak.
- **Eskubideak:** Zenbait tratamendu eskuratu, zuzendu edo ezabatu ditzake, edo horiei uko egin diezaieke; bestalde, tratamendua murriztu dezake, eramateari uko egin diezaioke eta bere datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritzen den erabakiari uko egin diezaioke. Idatziz, honako helbidera bideratutako eskaeraren bidez: **umivale**, Gizarte-segurantzarekin batera aritzen den 15. Mutua. Reial Monestir de Poblet etorbidea 20, 46930, Quart de Poblet (Valentzia). Zuzen-zuzenean gure edozein zentroan, ondoko posta elektronikora mezu bat bidalita: [dpd@umivale.es](mailto:dpd@umivale.es)
- **Informazio gehigarria:** Datuen babesa dela eta, informazio gehigarria eta zehaztua kontsulta dezakezu ondoko estekan: <https://www.umivale.es/protecciondedatos>

### Mutualitateak zera jakinarazten dizu:

I.- Gure bulegoetara jo ahal izango duzu edozein unetan, baita gure webgunea kontsultatu ere. Zure zerbitzura gaude aholkuak eta informazioa emateko.

II.- Indarreko araudiaren arabera, Mutualitateak dokumentu hau, tramitatutako espedientea osatzen duten gainerakoekin batera, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren aurrean aurkeztu ahal izango du egiaztapen eta deklarazioen arteko kontraesanak antzematen direnean.

III.- Mutualitatearen erabakiekin ados ez egotekotan, dagokion lan-arloko organo judizialera jo aurretiko erreklamazioa egin ahal izango duzu organo kudeatzaile honen aurrean.

IV.- Honako hauek dira langile autonomoen eta jarduera uzteagatik babesaren eskatzaileen eta onuradunen betebeharrak:

- a) Jarduera uzteagatik babes-estaldura kontingentzia profesionalak hitzartuta duten Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileari eskatzea.
- b) Jarduera uzteagatik babesari dagokion ekarpenagatik kotizatzea.
- c) Prestazioa aitortzeko, eteteko, amaitzeko edo berrekiteko beharrezkoa den dokumentazioa eta informazioa ematea.
- d) Jarduera uzteagatik prestazioan baja eskatzea, eskubidea eteten edo amaitzen denean edo prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez direnean, egoera horiek gertatzen diren unean.
- e) Norberaren edo besteren kontura lanik ez egitea prestazioa jasotzen den bitartean.
- f) Behar ez bezala jasotako prestazioak itzultzea.
- g) Organo kudeatzaileak eskatuta agertzea eta dagokion autonomia erkidegoko Enplegu Zerbitzu Publikoaren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren eskura egotea, haien deitutako prestakuntzako, lanbide-orientazioko eta jarduera ekintzailea sustatzeko jarduerak egite aldera.
- h) Organo kudeatzaileak, dagokion autonomia erkidegoko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo Itsasoko Gizarte Institutuak, kasua bada, langile horien enplegarritasuna areagotzeko erabakitzen dituzten motibazioko, informazioko, orientazioko, prestakuntzako, birmoldatzeko edo laneratzeko ekintza berariazkoetan parte hartzea.

V.- Jarduera uzteagatik prestazio ekonomikoa urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren V. tituluan araututa dago, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena, eta baita 1541/2011 Errege Dekretuan ere.